



EUSKARA JENDEA

Historiaren atarian

B MAILA ikaslearen kaiera

“EUSKARA JENDEA” DOKUMENTAL SORTA

Zein izan da gure hizkuntzaren ibilbidea historian zehar? Nola bizi izan du gure jendeak euskara? Nolako eragina izan dute hurbildu zaizkigun herri eta kultura desberdinek?...

“Euskara jendea” dokumental sortak galdera horien eta beste hainbaten erantzunak eskaini nahi ditu. Horretarako, Xamarrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izenburu bereko liburua hartu du abiapuntu, eta liburuak bezala, modu ulerterraz eta atseginean gure hizkuntzak eta gure jendeak eskuz esku egin duten ibilbide luzera hurbiltzea du helburu.


Lana 45 minutu inguruko sei dokumentalek osatzen dute:

- I. HISTORIAREN ATARIAN
- II. ERROMAKO INPERIOAN
- III. ANIZTASUNAREN BIDEAN (ERDI AROA)
- IV. MUGETAN GAINDI (ARO MODERNOA)
- V. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (1800–1945)
- VI. MUNDUA OSATZEN

KAIER DIDAKTIKOAK

Kaier didaktiko hauen helburua “Euskara jendea” dokumental sorta B eta C mailako euskara ikasleei hurbiltzea da. Horretarako, dokumentalen kontakizunei jarraitzeko eta aipatutako mailei dagozkien hainbat eduki lantzeko jarduerak eskainiko dira kaieretan. Jarduera horiek bai banaka (ikasleak bere kabuz), bai taldeka (euskara eskoletan) erabiltzeko aukera eskainiko dute.

KAIERAK BANAKA ERABILI

Nahi izanez gero, kaier hauek bere kabuz erabili ahal izango ditu ikasleak, irakaslearen edo ikaskideen laguntzarik gabe. Horretarako ariketa bakoitzaren enuntziatua arretaz irakurtzea eta jarraitzea besterik ez dago, “talde lana” sinboloa duten atalak alde batera utzita ().

Ariketen erantzunak lan bakoitzaren azken orrian aurkituko ditugu.

HISTORIAREN ATARIAN

Historiaurrean gizakiak Europa jendeztatu zuelarik, etorri, sortu edota garatu zen euskara. Lehenengo dokumental honek garai horietara hurbilduko gaitu, eta orduko gizakiei, bizimoduari eta ohiturei erreparatuz, geure hizkuntzaren lehenengo zantzuen bila eramango gaitu.

AURKIBIDEA

Dokumentala ikusi aurretik

LEXIKOA AURREIKUSTEN

1. Behar ditzakegun hitzak aurreikusiko ditugu 4. orr.

Helburua: Dokumentala hobeto ulertzen lagun gaitzaketan hitzak aurreikusi.

2. "Altxorraren kutxa" teknika erabiltzeko urratsak..... 6. orr

Helburua: Gai bati buruzko lexikoa zabaltzeko teknika bat ikasi.

NOLA IRUDIKATZEN DUZU GARAIA?

Helburua: Dokumentalean ikusiko denari buruzko hipotesiak eginez, gaiari buruzko interesa piztu.

Dokumentalaren ikusketa

IKUSKETA AKTIBOA EGINGO DUGU

4. Dokumentala ikusi aurretik, ikusketa prestatzen..... 10. orr.

Helburua: Dokumentalaren ikusketa prestatu, interesatzen zaizkigun puntuak identifikatu.

5. Dokumentala ikusi bitartean, oharrak jaso..... 11. orr.

Helburua: Dokumentalak eskaintzen duen informazioa modu antolatuan jaso.

Dokumentala ikusi ondoren

GAIARI BURUZKO HAUSNARKETA

6. Pentsatzen dut, interesatzen zait eta ikertzen dut..... 12. orr.

Helburua: Pentsamendu errutina bat erabiliz, dokumentalean ikusitakoari buruzko hausnarketa egin.

Ondorioak eta auto-ebaluazioa 13. orr.

Erantzunak 15. orr.

Dokumentala ikusi aurretik: Lexikoa aurreikusten

Edozein gairi buruz mintzatzeko badago ezinbesteko osagai bat: lexikoa. Gramatika erdipurdika menderatuta ere, lexikoa aberatsa izanez gero, molda gaitezke, nola edo hala, komunikatzeko orduan; lexikorik gabe, ordea, salduta gaude. Hortaz, gai bati buruz aritu aurretik komenigarria litzateke oso horren inguruko hitz sare zabala eratzea. Eta horri ekingo diogu atal honetan.

1. BEHARKO DITUGUN HITZAK AURREIKUSIKO DITUGU

Ikusiko dugun dokumentalak Historiaurreari buruz hitz egingo digu, eta orduko gizakiak, bizimodua eta ohiturak aurkeztuko dizkigu. Hortaz, entzungo duguna errazago ulertzeko, gai horien inguruko lexikoa aurreikusten saiatuko gara: nolako hitzak ager daitezke dokumentalean?

A. Dokumentalean, besteak beste, ondoko hitz hauek agertuko dira. Irakurri eta koka itzazu beheko taulan. Kokatu ondoren, bilatu hiztegian ezagutzen ez dituzun hitzen esanahia.

Ahaide	Hastapen
Aldare	Indusketa
Antzinate	Leize
Arbaso	Lurmendu
Arrasto	Milurteko
Aztarna	Orein
Belaunaldi	Sinesmen
Harlauza	Trikuharri
Harpe	Zantzu

- Hitza ezagutzen dut, eta erraz erabiltzen dut...

.....

- Hitza ezaguna da, baina ez zait erraz ateratzen...

.....

- Hitz berria da; ikasi beharko dut...

.....

B. Aurreko taulan dokumentala errazago ulertzen lagunduko digun hitz zerrendatxo osatu dugu. Baina zerrenda hori, erraz zabal dezakegu. Eta zabaltzen hasteko zera proposatzen dizugu: kopia ezazu orri batean aurreko taula jaso dituzun hitzak barne, eta atal bakoitzean burura datozkizun hitzak gehitu:

Lehenengo atalean, antzinateaz, ohituraz, bizimoduaz eta hizkuntzaz mintzatzeko ezagutzen eta erraz erabiltzen dituzun hitz interesgarriak jaso.

Bigarreanean, gai berberei buruz ezagutzen dituzun baina horren erraz erabiltzen ez dituzun hitzak.

Hirugarreanean, aipatutako gaiari buruz esaten jakin nahi zenituzkeen hitzak. Azken hauek ama hizkuntzaz jaso ondoren, hiztegian bilatu eta euskaraz idatzi zerrendan.

C. Eta gure lexiko sarea osatzeko azken urratsa emango dugu orain. Elkartu zaitez ikaskide batzuekin, hitz zerrendak elkarri erakutsi, eta kideen zerrendetan aurkitzen dituzun hitz interesgarriekin osa ezazu zeurea. Baietz guztion artean gaiari buruz mintzatzeko lexiko sare ederra eratu.



Aurreko orrian gai bati buruz mintzatzeko lexikoa aurreikusten ikasi dugu. Baina kontu bat da beharko dugun lexikoa identifikatzea, eta beste bat lexiko hori ikastea, geureganatzea. Orri honetan, hain zuzen ere, bigarren helburu honi ekiteko teknika erraza proposatu nahi dizugu: lexikoa ikasteko “Altxorren kutxa” izeneko teknika.

2. ALTXORRAREN KUTXA TEKNIKA ERABILTZEKO URRATSAK

1. Hasteko, hitz berriak gordetzeko ontziren bat beharko dugu: kutxa txiki bat, karta azal bat... Hauxe izango da gure “Altxorren kutxa”.

2. Behin ontzia dugula, gordeko dugun altxorra behar dugu: ikasi nahi ditugun hitzak. Hitz horiek edonon aurki ditzakegu: irakurri dugun testu batean, kalean entzundako elkarrizketetan, eskolan irakasleak proposatutakoen artean... edo, geure kasuan, gai bati buruz jarduteko aurreikusi ditugun hitzen artean.

- Hitzen aukeraketa egiteko aholku pare bat izan beharko genuke kontuan:

a. Ez saiatu hitz berri gehiegi batera ikasten, nahasgarria izan baitaiteke. Une bakoitzean altxorren kutxan 5-10 hitz berri izatea komeni da, ez gehiago, ezta gutxiago ere.

b. Saia zaitetz *zerbaitengatik esanguratsuak diren hitzak* aukeratzen: beharra sentiarazi dizutenak, interesa piztu edo atentzia eman dizutenak... Horrela errazago ikasi eta barneratu ahal izango dituzu.

* Aurreko ariketan gaiari buruzko hitz interesgarrien zerrenda prestatu duzu. Jo zerrenda horretara, eta datozen egunetan ikasi nahi dituzun 5-10 hitz berri aukeratu.

1..... 2..... 3.....

4..... 5..... 6.....

7..... 8..... 9..... 10.....

3. Paperezko txarteltxo batzuk prestatu. Papertxo horien alde batean, ikasi nahi duzun hitz berri bana idatzi; beste aldean, hitz bakoitzaren esanahia edo itzulpena.

* Euskara jendea “Historiaren atarian” dokumentala ikusi ondoren, ondoko txartel hauek sartu ditu lagun batek bere altxorren kutxan. Zein hitz egongo dira txartel hauen bestaldean?

Lurra altxatu zerbait
bilatzeko: hezurak,
monetak, ontziak...

Aspaldiko garaiak,
“la antigüedad / antiquité”

* Orain presta itzazu honelako txartelak aukeratu dituzun hitz berrieekin.

4. Tolestu erditik txartelak hitz berriak beti ere barrualdean utzita, eta gorde itzazu zeure “altxorren kutxan”.

* Elkartu ikaskide batekin, elkar trukatu zeuen altxorren kutxak, eta irakurri elkarri kidearen txartelen kanpoaldean idatzitako hitz edo esaldiak. Horrela norberak aukeratu berri dituen hitzak gogoratzen dituen ikusi ahal izango dugu.

* Ariketa hau ikaskide batzuekin errepikatzen baduzu, agian eguna amaitu aurretik espero baino hitz berri gehiago ikasiko dituzu.

5. Altxorren kutxako hitz berriak hobeto ikasteko, noizean behin atera txartela kutxatik, kanpoaldean idatzita dagoena irakurri, eta saia zaitez hitzak gogoratzen. Hitzak testuingururik gabe gogoratu beharrean, saia zaitez zuretzat esanguratsuak diren esaldietan kokatzen.

6. Batzuetan, nekez gogoratuko duzu hitza; laster, gogoratzeko gai izango zara apur bat ahaleginduz gero; eta une batetik aurrera, guztiz barneratuta duzula ohartuko zara. Une hori iritsitakoan, barneratutako hitzaren txartela kendu kutxatik, eta berri bat sartu ahal izango duzu.

Dokumentala ikusi aurretik: Nola irudikatzen duzu garaia?

Ikusiko dugun dokumentalak oso aspaldira eramango gaitu. Bidaia duela 40.000 urte hasiko dugu, Afrikatik etorritako Homo Sapiens Sapiensekin batera, eta urratsez urrats ibiliko gara erromatarren eskutik Historian sartu arte. Ibilbide horretan bertoko biztanleen bizimoduaren bilakaerari erreparatuko diogu, baina helburu argi batekin: euskararen jatorria aurkitzea.

3. NOLAKOA OTE ZEN?

Dokumentala ikusi aurretik, antropologo bilakatuko gara, eta garai urrun haiek irudikatuko ditugu. Zertan zebilen orduan euskal jendea? Nola zegoen gure hizkuntza? Irakur itzazu ondoko datuak, eta horietan oinarrituz, imajinatu itzazu proposatzen zaizkizun galderen erantzunak.

Aldi
historikoaren
ideia
nagusiak

Duela 40.000 urte Afrikatik etorritako Homo Sapiens Sapiensak bertoko neanderthalak ordeztu zituen gizarte antolaketan aurrerakuntzak ekarriz. Glaziazioak, bestaldetik, Pirinio ingururantz bultzatu omen zuen Europako populazio gehiena. Garai hartan gizakiak ehiztariak eta fruitu biltzaileak ziren. Horren isla kobetako arte figuratiboan aurki dezakegu.

Galderak

A. Nola irudikatzen duzu Goi Paleolitoko komunikazioa? Gaurko moduko euskara erabiliko zuten orduan? Keinuen eta marmarren bidez komunikatuko ziren? Irrintzien bidez? Zertan oinarritzen zara hori pentsatzeko?

.....


.....

.....

.....

.....

GOI PALEOLITOA
(k.a. 40.000 – k.a. 10.000)



Neolitoa duela 10.000 bat urte sortu zen Ekialde Hurbilean. Euskal Herrira duela 3000 bat urte iritsi zen. Gizakiaren bizimodua errotik aldatu zen: Harrapari huts izatetik abeltzaina eta nekazaria izatera aldatu zen. Horren ondorioz gizakiek bizileku finkoak eta lehen hiriak sortu zituzten. Neolitoa harri landuaren garaia da. Horren lekuko harrizko lanabesak eta hilobiak dira: harlauzak, trikuharriak...

B. Neolitoan eta Metal Aroan herri eta kultura indoeuroparrek hurbildu eta inguratu zuten gure lurra. Zein lotura izango zuen horrek euskararekin? Herri indoeuropar horietako batek ekarriko zuen euskara ala horien bisitaren aurretikoa izango da? Horrela bada, jasoko ote zuen horien eragina, ala guztiz isolatuta geratuko zen? Zuk zer esango zenuke?

.....

.....

.....

.....

.....

Harri Aroari Metalen Aroak jarraitu zion. Garai hartan Asiatik etorritako herri indoeuroparrak zabaldu ziren Europara. Bizimodu berriaz gain, hizkuntza indoeuroparrak ere ekarri zizkiguten (zeltera, iberiera, tartesera...).

C. Aritu batzuen ustetan, aizkora, aitzurra, aiztoa, guraizeak eta horrelako hitzak garai hauetako batean sortu ziren. Zure ustez, zein garaikoak izango ote dira, Goi Paleolitokoak, Neolitokoak ala Burdin Garaikoak? Zergatik pentsatzen duzu hori?

.....

.....

.....

.....

.....

HISTORIA

NEOLITOA
(k.a. 10.000 – k.a. XXVI. mendea)

METAL AROA
(k.a. XXVI mendea - k.a. II. mendea)

Dokumentala ikusi bitartean: Ikusketa aktiboa egingo dugu

Dokumentalak ikusteko modu asko daude: batzuetan, beste zerbaitetan ari garela (janaria prestatzen, afaltzen, arropa lisatzen...), zeharka ikusten ditugu; beste batzuetan, sofan lasaiago, arreta handiagoz ikuskatzen ditugu. Baina, nahi izanez gero, badago dokumentalek eskaintzen digutenari etekin handiagoa ateratzeko aukera: ikusketa aktiboa egitea. Horixe izango da, hain zuzen ere, ondoko ariketan bideratuko duguna.

4. DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK, IKUSKETA PRESTATZEN

Ikusketa aktiboa egiteko, eremua prestatu beharko dugu: Zer bilatuko dugu? Zeri erreparatuko diogu? Zerbait jasoko dugu? Nola? Ariketa honetan ikusketa prestatzeko bide bat proposatuko dizugu.

1. Dokumentala ikusi aurretik, gaiari buruzko galderen zerrenda prestatu.

a. Aurreko orriko ariketako hipotesiekin asmatu dugun jakin nahi badugu, dokumentalean planteatu zaizkigun hiru galderen erantzunak bilatu beharko ditugu. Hortaz, horiek izan daitezke zerrendarako lehenengo galderak.

b. Zerbait gehiago jakin nahi duzu gaiari buruz? Pentsa ezazu nolako galderak dakarzkizuten garai haiek burura, eta gehitu galdera horiek hasi duzun zerrendari.

c. Ikaskide batzuekin elkartu, prestatu dituzuen zerrendak alderatu, eta osa ezazu zeurea interesgarri deritzezun kideen galderekin.

d. Ez sartu galdera gehiegi azken zerrendan, bestela nahastu egin zaitezke dokumentala ikustean, eta haria gal dezakezu. Gehienez, interesgarrien deritzezun 7- 8 galdera jaso.



2. Prestatu oharrak jasotzeko orria.

a. Lehenengo eta behin, zerrendako galderak idatziko ditugu, eta galderei buruzko oharrak jasotzeko tarteak utzi beharko duzu.

b. Aurreikusi ditugunez gain, bestelako ideia interesgarriak ager daitezke dokumentalean. Horregatik, ohar gehiago jasotzeko lekua izan beharko genuke orrian. Eta ohar horiek ondo antolatuz, orria atalka banatuko dugu. Geure kasuan, garai historikoak izan daitezke atal horiek: Goi Paleolitoa, Neolitoa eta Metal Aroa.



Oharrak

A. Jakin nahi nukeena:

1. Nola komunikatzen ziren Goi Paleolitoan?

.....

2. Neolitoan hurbildutako herriek eragina izan zuten geure hizkuntzan?

.....

3.....

B. Bestelako ohar interesgarriak:

1. Goi Paleolitoa (k.a. 40.000 – k.a. 10.000)

.....

2. Neolitoa (k.a. 10.000 - k.a. XXVI. mendea)


.....

5. DOKUMENTALA IKUSI BITARTEAN, OHARRAK JASO.

1. Oharretarako orria presta duzula, orria eta boligrafoa eskura jarri, eta presta zaituz dokumentala ikusteko.

2. Zerbait interesgarria ikusi edo entzuten duzunean (zeure galdera baten erantzuna, bestelako datu bitxiren bat...), jaso oharra orrian.

- Ez galdu denbora datuak literalki jasotzen, eta ez zoratu gramatikarekin; datua gogoraziko dizun hitz bakarra edo esaldi laburra jasotzea nahikoa da, eta dokumentalaren haria ez galtzen lagunduko dizu.

3.  Dokumentala amaitu ondoren, alderatu zeure oharrak ikaskideekin, eta osa itzazu.

Dokumentala ikusi ondoren: Gaiari buruzko hausnarketa


Dokumentala ikusi ondoren, hausnarketa egiteko ordua iritsi zaigu. Zer ikusi dugu? Zer ikasi dugu? Zalantzaren bat geratu zaigu? Zerbait gehiago jakiteko gogoia piztu zaigu?... Hausnarketa horretan laguntzeko, pentsamendu errutina bat erabiltzea proposatzen dizugu: "Pentsatzen dut, interesatzen zait eta ikertzen dut" izeneko errutina.

6. PENTSATZEN DUT, INTERESATZEN ZAIT ETA IKERTZEN DUT

1. Idatzi ondoko zerrendan dokumentala ikusi ondoren buruan dituzun ideiak: Zer pentsatzen duzu orain "Euskara jendea Historiaurrean" gaiari buruz? Galdera edo kezka berriren bat sortu zaizu? Gaiari buruzko zerbaitetan sakondu nahiko zenuke? Nola?

Pentsatzen dut, interesatzen zait eta ikertzen dut

Pentsatzen dut Zer dakizu gaiari buruz? Aurreko oharrak lagun, idatz itzazu bildutako 3-5 ideia interesgarrienak.	Interesatzen zait Zer nolako galderak edo kezkak sortu zaizkizu? Zer gehiago jakin nahiko zenuke?	Ikertzen dut Zer ikertu nahi zenuke gaiari sakontzeko? Nola ikertuko zenuke?

2.  Elkartu ikaskide batzuekin, zerrendetako ideiak alderatu, eta partekatu, eta bila itzazue argitu edo sakondu nahi dituzuen puntuak ikertzeko estrategiak: nork bilatuko duen informazioa, non, nola partekatuko duzuen...

3. Erabakitako ikerketak egin, eta aurkitzen duzun informazioa bildu eta antolatu.

Ondorioak eta auto-ebaluazioa

Edozein lan egin ondoren, oso garrantzitsua da egindakoa ebaluatzea eta ondorioak ateratzea. Horretarako, orri honetan egin dugun lanari erreparatuko diogu, ikusi dugun dokumentala baloratuko dugu, eta egindako ariketarekin ikasi duguna aztertuko dugu.

DOKUMENTALARI BURUZKO IRITZIA

1. Dokumentala zure gustukoa izan da?.....1 2 3 4 5

- Zergatik?

2. Gaia interesgarria iruditu zaizu?1 2 3 4 5


- Dokumentalak eskaini dizkizun hiru ideia interesgarri aipatu:

a.

b.

c.

- Zergatik?



ARIKETAN IKASITAKOAREN BALORAZIOA

3. Lexiko berria ikasteko “Altxorren kutxa” teknika.

- Interesgarria iruditu zaizu teknika hori?1 2 3 4 5
- Hitz berriak ikasi dituzu ariketa horretan teknikari esker?..... 1 2 3 4 5
- Aurrerantzean erabiltzen jarraituko duzu?.....Bai / Ez
- Zergatik?

4. Dokumentalen ikusketa prestatzeko teknika.

- Lagungarria izan da teknika hori dokumentala hobeto ikusteko?1 2 3 4 5
- Zergatik?

5. “Pentsatzen dut, interesatzen zait eta ikertzen dut” pentsamendu errutina.

- Gaiaz hausnartzeko lagungarria iruditu zaizu teknika hori?1 2 3 4 5
- Zergatik?



ERANTZUNAK

1. ariketa, A. atala:

Ahaide: pariente, familiar, allegado, -a. Parent, membre de la famille.

Aldare: altar, ara. Autel.

Antzinate: antigüedad, tiempos antiguos. Antiquité.

Arbaso: antepasado. Aïeul, ancêtre.

Arrasto: huella, rastro, vestigio, pista, señal. Trace, vestige.

Aztarna: huella, indicio; vestigio, resto; pista, rastro. Trace, vestige, piste.

Belaunaldi: generación. Génération.

Harlauza: losa, baldosa. Dalle, lauze.

Harpe: caverna, gruta. Caverne, grotte.

Hastapen: comienzo, principio, origen. Commencement, origine.

Indusketa: excavación. Excavation.

Leize: cueva, caverna. Caverne, grotte.

Lurmendu: desnevar, derretirse la nieve; echar a perder, estropear, arruinar.

Milurteko: milenio. Millénaire.

Orein: ciervo. Cerf.

Sinesmen: fe [virtud]; creencia religiosa. Foi, croyance.

Trikuharri: dolmen. Dolmen.

Zantzu: vestigio, señal, indicio, pista, rastro. Indice, signe, piste.

2. ariketa, 3. Atala:

1. **txartela:** indusketa.

2. **txartela:** antzinate.